

# Administratzaileen erantzukizuna Euskadiko Gizarte Ekonomiako enpreetan: Bereziki Kooperatiba Elkartean

Gotzon GONDRA ELGEZABAL

Abokatua/Abogado

---

**Aurkibidea:** 1. Sarrera. 2. Administratzaileen Erantzukizunaren sortzea: kariak. 3. Administratzaile karguaren berezitasunak: a) Ezintasun eta debekuak. b) Erantzukizunetik aske gelditzen direnak. c) Ordainsaria 4. Egikaritu ahal diren Akzioak: a) Elkartearen Erantzukizun Akzioa. b) Bakarkako Erantzukizun Akzioa. 5. Auzi-bideratzea: a) Epai-bideetatik kanpo. b) Epai-bideak. 6. Ondorioak. Aipaturiko Bibliografia.

---

## Laburpena

Elkartetako administratzaileek beraien karguetan aritzerakoan zenbait baldintza betez gero, hau da, dituzten betebeharrak eta eginbeharren urratze edo ez betetzea, erantzukizunean erori daitezke, bai Elkarteari berari dagokionez eta baita bazkide —akziodun— eta/edo gainontzekoei —hartzekodun izan ala ez— dagokienez ere. Indarrean dagoen legeriak zenbait arau orokor ezartzen dituen arren, bai administratzaile karguari eta baita beraien erantzukizunari buruz ere, berezitasun eta salbuespen batzuk ere badaude, batez ere Euskadiko Elkarteko Kooperatiboei dagokienez; besteak beste, kaltetuen eskubideak bermatzeko 4/1993 Legeak, ekainaren 24koa, Euskadiko Kooperatibena —aurrerantzean EKL—, ezartzen dituen administratzaileen erantzukizun akzioetariko bat egikaritzeko erabakia dela bide, akordio eta ekintza kaltegarriaren ondorioz sortutako gatazka konpontzeko dauden aukera edo prozedura desberdinak.

## 1. Sarrera

Lehenik eta behin argitu behar den gauza da, bai Elkarre kapitalisten erantzukizuna eta baita Gizarte Ekonomiako Elkarreena<sup>1</sup> ere mugatua dela. *Bazkideek ez dute enpresaren zorren norbanako erantzukizunik*. Zor horiei buruzko muga, baltzu-kapitalean bazkideek dituzten ekarpenen kopurua izango da<sup>2</sup>, nahiz eta kasu zehatz batzuetan, adibidez etxebizitzan-kooperatibetan, arau orokor honek salbuespenak izan<sup>3</sup>.

Baina, Elkarrearen eta bera osatzen duten bazkideek duten erantzukizunaz gain, azpimarratu beharra dago Elkarrearen eguneroko kudeaketan sor daitezkeen erantzukizunak. Egiteko horiek (kudeaketa eta ordezkaritza) Elkarrearen administratzaileei dagozkie soil-soilik, legez edo estatutuen arabera gainontzeko organoei berariaz uzten ez zaizkien beste eginbeharrekin batera.

Erantzukizunak administratzaile guztien gain du eragina, bai legearen arabera (dagokion erroldan inskribaturikoak) administratzaile direnentzat eta baita ere nahiz eta legearen arabera (erroldan inskribatu gabekoak) administratzaile izan ez, ezkutuan elkarrearen benetako administrazioa daramatenak eta/edo besteen aurrean administratzaile gisa jarduten dutenak.

Dena den, administratzaileak era desberdinetan antolatuta aurki ditza-kegu<sup>4</sup> Elkarreetan, eta Euskadiko Kooperatibei dagokienez, *administratzaileak kide anitzeko organoa osatuko dute* —Artezkaritza-Kontseilua edo Kontseilu-Errektorea deritzolarik—, beti ere Kooperatibak hamar bazkide baino gehiago dituenen. Hamar baino bazkide gutxiagoko Kooperatibei,

---

<sup>1</sup> NEILA Neila, J.M.<sup>a</sup>: «*Sociedades laborales; análisis sistemático de la Ley 4/1997, de 24 de marzo*», Madrid, 1998, 239-245 orrialdeak. Euskadiko Elkarre Laboralak arautzen dituen 4/1997 Legeak, martxoaren 24koa, Elkarre Laboralena, ez du administratzaileen erantzukizunari buruzko aipamen zehatzik egiten, beraz, gai honi buruz legeria orokorrak dioena hartu behar da kontutan, beti ere Gizarte Ekonomiako enpresak diren heinean dituzten berezitasun eta salbuespenak —lan honetan aipatzen dira— bermatuz.

<sup>2</sup> EKL-aren 56.1 artikulua.

<sup>3</sup> OLAVARRÍA IGLESIA, J. eta FAJARDO GARCÍA, G.: *Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa (CIRIEC)*, 11. zenb., 2000ko azaroa, 156-157. orrialdeak; GONZÁLEZ TAUSZ, R.: «Las cooperativas de viviendas de responsabilidad limitada no existen», *Revista de Estudios Cooperativos (REVESCO)*, n.º 67, 1999, 1.º cuatrimestre, 106. orrialdea eta hurrengoak.

<sup>4</sup> VINCENT CHULIÁ, F.: «Los órganos sociales de la cooperativa», *RJC*, 1978, 81 eta hurrengo orrialdeak; SANZ SANTAOLALLA, J. eta UGARTE ZUBIZARRETA, L.: *Análisis jurídico de los órganos sociales de las cooperativas vascas y pautas de funcionamiento adecuadas*, Oñati, 2001, 84-87. orrialdeak; eta BOQUERA MATARREDONA, J.: «El órgano de administración en las sociedades laborales», *Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa (CIRIEC)*, 13. zenb., 2002ko urria, 111-124 orrialdeak.

EKLak administratzaile bakarra izatea ahalbideratuko die, beti ere Estatu-tuek aukera hori jasoz gero<sup>5</sup>.

## 2. Administratzaileen Erantzukizunaren sortzea: Kariak

Hasieran, Merkataritza Kodeak «mandatari» hitza erabiltzen zuen eta beraien eta Elkartearen arteko harremana mandatu eta zerbitzu errentamendu kontratu bezala ulertzen zuen, eta ondorioz beraien erantzukizuna kontratu erantzukizunean zeritzon. Baina 1989ko erreformak mandatari —*mandatario*— kontzeptua nahita uzten du alde batera, kontratuzkoa zen harremana izaera organikoa duen harreman bihurtuz. Erantzukizun erregimen berriaren helburua nagusia Elkartearen kapitala eta kudeaketa bote-reak banatzea zen, botere eta erantzukizunaren arteko oreka berreskuratuz. Gainera, legegintza botereak, erantzukizun sistema latz eta hertsia aldarrikatu du administratzailearen irudia profesionalizatzeko intentzioarekin.<sup>6</sup>

Profesionaltasun hori noiz betetzen den ala ez neurtzeko, legeak, kudeaketa eta ordezkaritza eginbeharretan administratzaileen jardura zein izan behar den ezartzen du: enpresari fina eta ordezkari zintzoa bezain zuzen aritu, ez legean edo estatutuetan ezarritakoaren aurka, ezta Ordena Publikoaren aurka aritu eta beraiei dagozkien ekintzak behar bezain ondo egin.

Administratzaileei, beraien karguetan aritzerakoan harturiko akordio eta akordio hori gauzatzeko burututako ekintza zerrendatutako jardura horietatik at izanez gero, esparru penaleko erantzukizuna eraxikitu ahal izango zaie, merkataritza esparruan oinarritutako erantzukizunaz gain. Bestalde, egoera bakoitzean administratzaileek kontutan hartu eta betebeharreko legeriaren ez betetze edo urratzeak, beraien erantzukizunaren beste azpisailkapen batzuk onartzen dituzte, ez betetze edo urratzeak eragina duen esparruaren arabera; adibidez lan edo zerga esparruetan oinarritutako administratzaileen erantzukizuna.

Bai Doktrinak eta baita Jurisprudentziak<sup>7</sup> adierazitakoaren arabera, Administratzaileen **Erantzukizun Penalari** dagokion arau orokorra hurrengo da: Elkarreek ezin dute deliturik egikaritu ez dutelako erruduntasuna eta egozgarritasuna izateko gaitasunik, hau da, ez zaie horretarako gaitasunik aintzatezten «*societas delinquere non potest*», nahiz eta pertsona juridikoei zenbait ondorio juridiko eraxikitzeke aukera dagoen:

<sup>5</sup> EKL-aren 41.1 artikulua.

<sup>6</sup> PÉREZ CEPEDA, A.I.: *La responsabilidad de los administradores de sociedades: criterio de atribución*, Barcelona, 1997, 33-35 eta 61-63 orrialdeak.

<sup>7</sup> Auzitegi Gorenaren ebazpenak: 1975eko apirilaren 4koa eta 1982ko azaroaren 12koa.

- Subentzioak eta laguntza publikoak jasotzeko aukeraren eta Gizarte Segurantzari dagokionez edo fiskaltasunari dagokionez pizgarri eta onurak gozatzeko eskubideen galera.
- Saltoki, fabrika, laborategi edo dendaren ixtea.
- Enpresaren edo honen lokal eta establezimenduen behin-behineko edo behin betiko ixtea; elkartearen desegitea; enpresaren jardunaren etenaldia, gehienez bost urtetarako; enpresaren esku hartze edo eskusartzea.

Auzitegi Gorenaren 1972ko urriaren 10eko ebazpenak dioen bezala, pertsona fisikoak soilik izan litezke delituzko ekintza baten erantzule. Edozein pertsona fisikok beste baten (fisikoa zein juridikoa) izenean jarduten duenean, administratzaile, kudeatzaile —zuzendari, gerente, legelari aholkulari...— edo ordezkari gisa, era pertsonalean erantzun beharko du nahiz eta egindako delituaren subjektu aktiboa izateko bete beharreko baldintza eta ezaugarriak ez bete, baldintza eta ezaugarri horiek ordezkatzan edo bere izenean ari diren pertsonak betetzen baditu. Bakoitzari dagokion erantzukizuna zehaztu ahal izateko, nahitaezkoa da bakoitzak izan duen jarduera edo ez egiteak aztertzea. Ez da nahiko elkartearen administratzaile, zuzendari, ordezkari... dela frogatzearekin, inputatuak era kausalean eta errudunean jardun duela frogatu beharko delarik; beraz, arau orokor bezala, eta kontrakoa frogatu bitartean, inputatua errugabea da eta ondorioz ez du inongo erantzukizun penalik.

**Merkataritza esparruan** berriz, administratzaileen erantzukizun jaurpidea funtsezko bi baldintzetan oinarritzen da:

- a) Elkarteari, gainontzeko bazkideei edo elkartearen edozein hartzekoduni kalte bat eragitea.
- b) Legez betetzera derrigortuta dagoen betebehar bat ez egitea; bereziki egoera zehatz batzuetan Elkartea ez desegitea.

Administratzaileen erantzukizuna ondorioz, kalte bat sortzeagatik edota zor bati aurre ez egiteagatik ager daiteke<sup>8</sup>.

*Zorraren ondorioz* eratzikitutako erantzukizunari dagokionez<sup>9</sup>, Elkar-teak honen zenbatekoari aurre egiteko haina izan ezean eta ordainketa baldintzak negoziatu ostean administratzaileen erantzukizuna Kooperatiba de-segin eta kitatzeko Batzar Nagusiaren deialdia ez egitean datza<sup>10</sup>, hori

<sup>8</sup> Auzitegi Gorenaren Ebazpena; 2000ko abenduko 29koa.

<sup>9</sup> OLAVARRÍA IGLESIA, J.: *Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa (CIRIEC)*, 10. zenb., 1999ko urria, 137-140. orrialdeak.

<sup>10</sup> 22/2003 Legea, uztailaren 9koa, Konkurtso Legea; *Estatuko Aldizkari Ofizialean* 2003ko uztailaren 10ean argitaratua.

baitagokie administratzaileei enpresari fin, leial eta ordezkari zintzo bezala aritzeko betebeharrarekin bat etorritik. Nahiz eta zorrari aurre egiteko posibilitatea izan, ez balitzateke egingo, kalte bat eragingo litzateke eta kalte bat eragiteagatik sortutako erantzukizunaren kasuan aurkituko lirateke Administratzaileak.

*Kalteren bat eragiteagatik* sortzen edo eratzikitzen den erantzukizunari dagokionez, hurrengo ezaugarriak ditu:

- *Legezkoa*: Erantzukizuna berdina izango da, nahiz eta Estatutuek kontrakoa ezarri edo legez dagokionaren azpitik mugatu.
- *Pertsonala*: Erantzukizuna eskatzen zaie, ez administrazio organoarena, baizik eta bera osatzen dutenen kideei.
- *Organikoa*: Legearen eta/edo estatutuen arabera administrazio organoari dagozkion eskumenak betetzerakoan agertzen da erantzukizuna, eta ondorioz soilik administrazio organoko kide direnak eta beraien karguetan diharduten heinean erantzungo dute.
- *Erruagatik*: Ezin bestekoak dira kaltea eta errua izatea; kaltea erruz jardundako ekintza horren ondorioz gertatu behar delarik. Hau da, kalte derrigorrezkoa izan arren ez da nahikoa administratzaileei erantzukizuna eskatu ahal izateko, ezinbestekoa da kalte hori administratzaileek beraien karguetan aritzean izandako hutsegite baten ondorio izatea. Gainera hutsegitea pertsonala denez, hutsegite hori burutu duten administratzaileek erantzungo dute soilik.

Laburbilduz, administratzaileen erantzukizuna sortzeko edo agertzeko, beharrezkoa da alde batetik Elkarteari, bazkideei edo/eta gainontzekoei —hartzekodunak izan ala ez— kalte bat sortu dien eta zilegia ez den ekintza bat ekoiztea —legearen eta/edo estatutuen aurkakoa edo behar bezain ondo ez aritzeagatik—, eta beste batetik administratzaileen ekintza ez zilegiaren eta sortutako kaltearen artean kausalitate harremana izatea. Ez da nahikoa horietako bat edo batzuk gertatzearekin, gizarte-erantzukizuna sortzeko denak aldi berean agertu behar dira<sup>11</sup>:

a) *Zilegia ez den egitea edo ez egitea*

- Legearen aurkako ekintza bat egitea, lege bezala edozein arau juridiko hartuz, lege horren lerruna kontutan izan gabe, eta baita ere, karguen arabera beraiei ez dagokien ekintzak burutzeagatik.

<sup>11</sup> Bartzelonako Auzitegi Nazionalaren Ebazpena, 1993ko urriaren 6koa.

- Estatutuek jasotakoaren aurka egindako ekintza; legeak administratzaileei ezarritako betebeharez gain, Estatutuek betebehaz zehatz gehiago arautu ditzakete, beti ere legeak ezarritakoa errespetatuz, eta, agindu baliogabeen urratzeak ez bezala, baliokoak eta zilegiak diren agindu horien urratze edo hutsegiteak eta ez betetzeak erantzukizuna sortu dezake<sup>12</sup>.
- Batzar Nagusiak erabakitako balioko akordioen aurkako ekintzak ere erantzukizuna sortzen du. Gainera, Elkarteari kalteak saihesteko eta behar bezala aritzeko betebehazretan oinarrituz, baliogabeak edo baliogabetezkoak diren Batzar Nagusiaren akordioen aurka egin behar dutelarik.
- Ekintzak behar bezain ondo ez egiteagatik ere erantzukizuna sor daiten. Administratzaileek dituzten ahalmen guztiak aldi berean betebehazrak dira eta beraien zereginetan enpresari txukun (zuhurtasunez eta profesionaltasunez jokatu) eta ordezkari zintzo bezala aritu behar dute (elkartearen interesak bakoitzaren interesen gaintik ezarrituz...), beti ere beraien karguak direla bide lortutako isilpeko informazioari buruzko sekretua gordez.

#### b) *Kalte bat sortzea*

Administratzaileei erantzukizuna eskatu edo eratzikitu ahal izateko gertatu beharreko bigarren betekizuna eragindako kaltea benetakoa izatea da; kaltearen benetakotasuna.<sup>13</sup>

Kaltetzat ulertu beharra dago ondarearen benetako txikipena —kaltea burutu den unea edo kaltetuak horren berri izan duen momentua kontutan hartuz—, hau da, ondarearen gaur egungo zenbatekoa eta kaltea burutu ez balitz ondare horrek izango lukeen zenbatekoaren arteko diferentzia.

Bereiztu beharra dago:

- Kaltea Elkartearen ondareari eragiten zaionean.
- Kaltea bazkideen edo hartzekodunen ondareari eragiten zaionean.

#### c) *Administratzailearen errua*

Arau orokor bezala, ez du erantzun behar bezain ondo aritu den administratzaileak, hau da, administratzaileen erru mailan oinarritutako salbuespenak egotzi egiten dira.

<sup>12</sup> PÉREZ CEPEDA, A.I.: *La responsabilidad...*, *op. cit.*, 105-117. orrialdeak.

<sup>13</sup> Auzitegi Goreneko Ebazpena; 1990ko otsailaren 13koa.

Erantzukizuna sor dadin, administratzailearen errua izan beharrak bere jarduera edo jokabidea halabeharrez nahita egindakoa izatea eskatzen du, eta ondorioz nahitasun hori falta den edo larriki bizituta dauden kasuak (derrigortze, indarkeria, eta abar direla medio) salbuetsita gelditzen dira.

Gainera, lehen esan bezala, kontutan izan behar da administratzaileek eragindako kaltea beraien karguari dagozkien eginkizunak burutzerakoan sortu behar dela. Administratzaileek lokabean eragindako kalteei dagokienez, erantzukizuna eskatzeko prozedura arrunta eratzikitu ahal izango zaie<sup>14</sup>, inoiz ez hemen aipaturiko akzioa.

Kaltea eragiten duen ekintzak, administrazio organoaren talde-erantzukizuna (akordioa kide anitzeko administrazio organoak edo organo horretako zenbait kidek harturikoa bada) edo banakako-erantzukizuna eragin dezake, akordioa nork hartu duen kontutan izanez.

#### d) *Kausalitate harremana*

Administratzaileen jarduera izan behar da kaltea sortzearen karia. *Norbaitek, egite edo ez-egitearen ondorioz, kalte egiten badio beste bati, tartean errua edo zabarkeria izanik, eragindako kaltea konpontzeko betebeharra du*<sup>15</sup>. Kausalitate lotura da erantzukizun akzioaren oinarri materiala, horregatik, ustekabe eta ezinbesteko kasuak salbuetsita gelditzen dira, erruagatiko erantzukizunaren kasuan gertatzen den bezala, hain zuzen ere kausalitate lotura hori ez dagoelako. *Legeak beren beregi aipatzen dituen kasuetatik kanpo, eta betebeharrak berak adierazten dituenetatik kanpo, inork ere ez du erantzukizunik izango, aurreikusi ezin diren gertaerengatik, edo, aurreikusita ere, saihestezinak direnengatik*<sup>16</sup>.

Kaltea, administratzaileen betetze gabeziaren edo, doloa<sup>17</sup> dela bide, ez betetzearen ondorioz eragindakoa izan behar da, kausalitate harremana edo lotura kasu bakoitzean aztertu behar delarik; kaltea eragin duen ekintzak eraginkortasun nahikoa izan behar du emaitza hori ondorioztatzeko<sup>18</sup>.

<sup>14</sup> Auzitegi Gorenko Ebazpena; 1990eko apirilaren 3koa.

<sup>15</sup> Kode Zibilaren 1902. artikulua.

<sup>16</sup> Kode Zibilaren 1105. artikulua.

<sup>17</sup> Egilearen nahia doloa egon dadin: ez da soilik emaitza zehatz bat gerta dadin desiratzea, baizik eta, delitu-ekintza bitartez, aurreikusitako legez kontrako emaitza gerta dadin nahi izatea.

<sup>18</sup> Auzitegi Gorenaren Ebazpena; 1998ko uztailaren 3koa eta Asturiaseko Auzitegi Nazionalaren ebazpena; 1999ko martxoaren 22koa.

e) *Aipaturiko oinarri horien froga*

Erantzukizunari dagozkion oinarriak —kaltea, errua eta bien arteko kausalitate harremana edo lotura— prozedimenduan frogatu egin behar dira, frogaren zama auzi-jartzaileari dagokiolarik<sup>19</sup>. Dena den, erantzukizuna eragiten duten osagai edo kariak administrazio organoarekiko —orokorki— gertatzen direla benetakotu edo frogatu behar du soilik auzi-jartzaileak, administrazio organoko kide bakoitzari dagokiolarik erantzukizunetik aske dagoela frogatzea. Beraz, azken egoera honetan frogaren zama irauli egiten da.

Lege eta/edo Estatutuek ezarritakoaren ez betetzea dagoenean ez dago arazo berezirik, baina behar bezain ondo aritu ez direla frogatzea askoz zailagoa da, batez ere kontutan hartzen badugu erantzukizunak bere sorrera duen ekintza eta akordioak jasotzen diren elkarte agiriak administratzaileen esku aurkitzen direla.

### 3. **Administratzaile karguaren berezitasunak**

Aurreko puntuan azpimarratu bezala, administratzaileen erantzukizuna organikoa da, hau da, legearen, estatutuen edo Batzar Nagusiaren akordioen arabera administrazio organoari dagozkion eskumenak betetzerakoan (ez betetzerakoan...) sortzen edo agertzen da, eta ondorioz administrazio organoaren kide direnek erantzungo dute soilik, administratzaile karguan diharduten heinean.

Horrenbestez, eta administratzaileen jarduera leiala, fina eta zintzoa bermatzekotan, EKL-ak administratzaile izateko zenbait ezintasun eta debeku ezartzen ditu, legeak ezarritako zerrenda hori Kooperatiba bakoitzak bere Estatutuen bidez handiagotzeko aukera izango duelarik<sup>20</sup>.

A) *Ezintasun eta debekuak*

EKL-ak ezartzen duenez ezin dira administratzaile izan zuzendari-gerenteak ezta Kooperatibako gainontzeko organoetako kideak ere<sup>21</sup>. Askotan, administrazio organoak beste pertsona bati edo batzuei (zuzendari-gerenteak, legelari aholkularia...) zenbait kudeaketa eta ordekaritza eskumen

<sup>19</sup> Bartzelonako Auzitegi Nazionalaren Ebazpena; 1997ko abenduko 27koa.

<sup>20</sup> EKL-aren 42 artikulua.

<sup>21</sup> EKL-aren 42.1.d) artikulua.



orokor eman ahal izango dizkie, beraien gaitasunak aginpideak ematen dituen idatzian ageri direnak izango direlarik; bestalde, edozein pertsonaren esku utzi ahal izango ditu eskumen bereziak<sup>22</sup>, baina beti ere Kontseilu Errektorearen funtzionamenduan parte hartu gabe. Honek, normalean egonkor egingo du enpresa, bazkideen aurrean kudeaketa gardenagoa eta profesionalagoa eginez. Aginpide emate hau administrazio organoak duen legezko ahalmen edo eskumena izan arren, askotan aginpide emate honek administratzaileen eginbeharren lagatzea dakar.

Administrazio organoari dagozkio enpresaren kudeaketa, ordezkaritza eta gobernua<sup>23</sup> eta zuzendaritza kudeaketa tresna besterik ez den **zuzendari-gerenteak** burututako kudeaketaren azken erantzukizuna administratzaileei eratzikituko zaie. Horregatik aginpide ematen den idatzian «kalterik gabe» ezartzen da, hau da, administratzaileen azken erantzukizunaren kalterik gabe; Elkartearen administrazio, kudeaketa eta kontrola dagokion organoaren menpekotasunean<sup>24</sup>.

Sarritan, praktikan gertatu ohi den arrisku bat agertzen da: zuzendari-gerenteak enpresa guztiaren martxa orokorraren berri izanik botere gehien izatea, Kontseilu Errektorearen ahalmenak bereganatuz<sup>25</sup>.

Menpekotasun harreman horren ondorioz enpresaren kudeaketa eta ordezkaritza erenn pilatzea gertatzen da, hau da, aginpidean emandako eskumen horien gaineko kontrola eramateko betebeharra eskatu ahal izango zaiola administrazio organoari. Administratzeko eta kudeatzeko betebeharra ez betetzeagatik erantzule solidario gisa jardungo du Kontseiluak; bai behar bezalako kontrola eraman izango balu kaltea eragotziko zelako, eta, baita, kaltea aginpidetik ez ematearen —burutze edo programazio ezaren emaitza bezala— ondorioz sortzeagatik<sup>26</sup>.

Berdin gertatzen da Elkartek **Legelari Aholkularia** duen edo izan behar duen kasuetan:

—Estatu Sozialek horrela ezartzen dutenean.

—Batzar Nagusiaren erabakiaren ondorioz.

<sup>22</sup> EKL-aren 41 artikulua.

<sup>23</sup> PASTOR SEMPETE, C.: «Consejo Rector (Administradores) y Dirección», *Revista de Estudios Cooperativos (REVESCO)*, n.º 77, 2002, 2.º cuatrimestre, 123-129. orrialdeak.

<sup>24</sup> MONTOLÍO HERNÁNDEZ, J.M.ª: «Consejo Rector y Dirección en la Nueva Ley General de Cooperativas», *Revista de Estudios Cooperativos (REVESCO)*, n.ºs 56-57, 1988-1989, 141-144 orrialdeak.

<sup>25</sup> SANZ SANTAOLALLA, J. eta UGARTE ZUBIZARRETA, L.: *Análisis jurídico...*, op. cit., 85. orrialdea.

<sup>26</sup> PÉREZ CEPEDA, A.I.: *La responsabilidad...*, op. cit., 62 orrialdea.

- Elkartek urte kontuak kanpoko ikuskaritzaren menpe jartzera behartuta daudenean<sup>27</sup>.
- Herri Zorretan obligazioak jaulkitzen dituzten Kooperatibak.
- Aseguru Legeriari mugatutako jarduerak burutzen dituzten Kooperatibak.

Administratzaileei kontuak eskatu dakizkieke legelari aholkularia izendatzeko betebeharra ez betetzeagatik, baina kontu handiz jardun behar dute Kooperatibetako administratzaileek, legelari-aholkularia, zuzendari-gerentea eta **gainontzeko baltzu-organoetako kideak**<sup>28</sup> ezin direlako inoiz administratzaile izan, Kapitalezko Elkarteetan gertatzen ez den bezala<sup>29</sup>. Hau da, Euskadiko Kooperatibetan *eginkizun horren egiterapena elkartezina denez administratzaile izatearekin*<sup>30</sup>, bere erantzukizuna elkartearekin duen harremanaren arabera ezarriko da; *zerbitzu-akurapenaren menpekoa* (karre-rako lanbidedun gisa) *edo lan-legepeko zein sozietatepeko* (lan-bazkide edo bazkide langile gisa) *hitzarmenaren bidezkoa izan daitekeelarik*<sup>31</sup>. Legelari aholkulariak arduragabekiaz jokatzeko badu, bere eskumeneko jardunetan eragindako kalteen gaineko erantzukizun zibila izango du, bai Elkarteen aurrean eta baita bazkide eta gainontzekoen aurrean ere<sup>32</sup>, kalteak beraiei eragiten dien heinean.

#### B) *Erantzukizunetik aske gelditzen direnak —askatutakoak—*

Baina nahiz eta printzipioz eta arau orokorrak dioenaren arabera administrazio organoa osatzen duten kide guztiak izan erantzule, salbuespen gisa erantzukizunetik aske gelditu ahal izatearen helburua erantzukizun solidarioaren funtzionamenduari mugak ezartzea da, erantzukizun solidarioa

<sup>27</sup> Elkartek hurrengo hiru baldintzetatik gutxienez bi betetzen dituenan:

- a) Aktibo Totala 300.506,05 euro baino handiago izatea.
- b) Urteko negozioen kopuruaren zenbateko garbia 601.012,10 euro baino handiago izatea.
- c) Ekitaldian zehar izandako batz besteko langile kopurua 50 baino handiagoa izatea.

<sup>28</sup> MERINO HERNÁNDEZ, S.: «Derechos y deberes de los órganos sociales de las cooperativas: interventores y Comité de Recursos», *Revista de Estudios Cooperativos (REVESCO)*, n.º 77, 2002, 2.º cuatrimestre, 109-122. orrialdeak.

<sup>29</sup> RODRÍGUEZ RUIZ DE VILLA, D. eta HUERTA VIESCA, M.ªI.: «La responsabilidad de los administradores en las sociedades de capital», Aranzadi, Pamplona, 1997, 104-117 orrialdeak.

<sup>30</sup> EKL-aren 73.4 artikulua.

<sup>31</sup> EKL-aren 73.5 artikulua.

<sup>32</sup> EKL-aren 73.3 artikulua.

eta erantzukizun pertsonalaren printzipioaren arteko elkargarritasuna bilatuz. Hori dela eta ez du organoak erantzuten baizik eta bera osatzen duten kideek, erruan oinarritutako erantzukizun subjektiboa delarik<sup>33</sup>.

Beraz, printzipioz eta kontrakoa frogatu ezean, administratzaile guztiak dira errudun eta erantzule solidario, *nabiz eta ekintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak hartu, baimendu edo berretsi*<sup>34</sup>.

Administratzaileak erantzukizunetik aske gelditu ahal izango dira hurrengo egoeratariko baten aurkitzen direnean:

- Akordio kaltegarria hartzeko unean eta ekintza betetzerakoan parte hartu ez dutenean, edo
- Akordio eta ekintza horiek existitzen zirenik jakin ere ez zekitenean, edo
- Akordio eta ekintza horiek ezagutu arren, kaltea eragozteko ahalegin guztiak egin dituztenean edo gutxienez espresuki beraien kontra agertu eta aritu direnean

Baina kasu hauetan, arau orokorraren salbuespen diren heinean, frogaren zama erantzukizunetik aske gelditu nahi duten administratzaileei dago-kie.

### C) *Ordainsaria*

Gutziz funtsezkoa da baita ere administratzaileen erantzukizuna neurtu eta zehaztu ahal izateko beraien karguetan aritzeagatik ordainsaririk jasotzen duten ala ez jakitea<sup>35</sup>, zeren eta logikoa den bezala, karguan aritzeagatik ordainsariak jasotzen dituzten administratzaileek beraien kargua behar bezala egikaritzeko ezaguera, esperientzia, adimen eta profesionaltasun bereziak dituztela suposatu beharra dago, eta ondorioz ekintza ez zilegi edo kaltegarriak eragiteagatik erantzukizun araubidea ere gogor edo latzagoa izango da.

Normala den bezala, ezin izango zaie administratzaileei erantzukizun berdina jasan arazi beraien gaitasun eta trebezia dela bide karguan aritzeagatik nolabaiteko ordainsaria jasotzen badute edota ez badute inongo ordainsaririk jasotzen karguan aritzeko gaitasun edo trebezia berezirik ez izateagatik; ezin ahaztu daiteke Kooperatiba gehienetan administratzaileak

<sup>33</sup> PÉREZ CEPEDA, A.I.: *La responsabilidad...*, *op. cit.*, 50-55 orrialdeak.

<sup>34</sup> EKL-aren 47.3 artikulua.

<sup>35</sup> PASTOR SEMPERE, C.: «Consejo Rector...», *op. cit.*, *Revista de Estudios Cooperativos (REVESCO)*, n.º 77, 2002, 2.º cuatrimestre, 144-147. orrialdeak.

bazkide guztien arteko bozketa bidez aukeratzen direla —Batzar Nagusian eta ia beti bazkideen artetik, nahiz eta legeak bazkide ez direnak administratzaile izendatzeko aukera eman<sup>36</sup>— eta ondorioz gerta daiteke enpresa kudeatzeko eta ordezkatzeko gaitasunik eta trebeziarik ez duen norbait izendatua izatea. Kasu hauetan enpresaren gainontzeko bazkideek ere —bereziki bozketan parte hartu dutenek— aukeratutako administratzaileen ezgaitasun edo trebezia ezaren ondoriozko emaitzen gain nola-baiteko erantzukizuna ere izan beharko lukete, ekintza kaltegarria administratzaileak doloz jardutearen ondorio denean izan ezik.

Administratzaileak ez daude Elkartearen azken helburua den arrakasta ekonomikoa bermatu edo lortzera behartuta, Elkartearen interesen alde behar bezala eta leialtasunez jardutera betebehartuta<sup>37</sup> baizik, baita bere interes pertsonalen gainetik ere. Karguetan aritzerakoan garbitasun, eragingarritasun eta segurtasun maila zehatzak bermatu beharko dituzte, baina esan berri denez, karguan behar bezala aritzeko eta ondorioz eragingarritasuna eta etekinak lortu ahal izateko gaitasunik, ezaguerarik eta trebeziarik ez izateak erantzukizuna mugatu egingo dute.

EKL-ak ezarritakoaren arabera *Estatutuetan edo Batzar Nagusiak horrela erabakiz gero, administratzaileek ordainsariak jaso ahal izango dituzte, eta kasu guztietan karguan aritzeagatik sortutako gastuak ordainduko zaizkie*<sup>38</sup>. Beraz, administratzaileen ordainsariak honako printzipioak ditu:

- Karguaren doakotasunaren ustea.
- Estatutuen xedapena.
- Ordainsaria finkatzeko eredia zehazteko askatasuna.

Beste legeria batzuek jasotzen dutenaren aurka, gure araudiak ez dio administratzaile karguari ordainsari izaera ezartzen, legekoa izanik administratzaileek ordainsaririk ez jasotzea beraien karguetan aritzeagatik. Gainera hori da legeak ezartzen duen arau orokorra, hau da, administratzaileek beraien karguetan dohainik jarduten dutelakoa, Estatutuek bes-telakorik ezarri ezean. Hori dela eta, administratzaile kargua dohainekoa izango da:

- Estatutuek espresuki hori adierazten dutenean, edo
- Estatutuetan karguaren ordainsari izaerari buruzko inongo aipamenik egin ezean.

<sup>36</sup> EKL-aren 41.2 artikulua.

<sup>37</sup> OLAVARRÍA IGLESIA, J.: *Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa (CIRIEC)*, 10. zenb., 1999ko urria, 114-116. orrialdeak.

<sup>38</sup> EKL-aren 43. artikulua.

Baina doakotasun honek ez du zerikusirik administratzaileek kargutik kanpo burututako ekintzengatik —erlazio juridiko ezberdinetan oinarrituriko harremanen ondorioz— ordainsariak jasotzearekin; ordezkartzaren printzipio orokorretan oinarrituta dagoen karguan aritzeagatik sortutako gastuen ordainketa, eta, kargua alderdi batera utzita, Elkarateak eta administratzaileek elkarrekin duten lan kontratutik —sozietate kontratua...— ondorioztatzen diren zerbitzu edo lanagatiko ordainketa edo ordainsariak.

Orain arte esandakoarekin jarraituz, administratzaileek karguan aritzeagatik ordainsaria jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da Estatutuetan espresuki horrela adierazita egotea. Estatutuetan, argitasun eta zehaztasun osoz adierazita egon behar dira, edozein zalantzagarritasun edo zehazgabetasun saihestuz:

- karguak ordainsari izaera duela, eta
- ordainsari izaera zehatza zein den.

Doktrinak ez du onartzen Estatutuetan administratzaile karguaren izaera ordaindua zenbait ingurumen edo egoeren eskupean izatea edo Bartzar Nagusiaren erabakiaren menpe egotea.

Guzti hori dela eta, Estatutuek administratzaileek jaso beharreko ordainsari eredia ezarri behar dute, ez ordainsariaren zenbateko zehatza, nahiz eta ezerk galarazten ez duen Estatutuek ordainsari eredia jasotzeaz gain ordainsariaren zenbatekoa zehazteko irizpideak ezartzea edo, erreferentzi bezala bada ere, zenbateko hori finkatzea.

Beraz, irizpide guzti hauek ere kontutan hartu beharrekoak dira beraien garrantzi ukaezinagatik administratzaileen erantzukizunik dagoen ala ez aztertzeko eta, izanik, erantzukizun horren norainokoa neurtu eta zehaztu ahal izateko.

#### 4. Egikaritu ahal diren Akzioak

Legeak, bi mekanismo edo akzio ezartzen ditu administratzaileei erantzukizuna eskatu ahal izateko. Doktrina eta Jurisprudentziak bateratutakoaren arabera<sup>39</sup>, bien arteko diferentzia edo ezberdintasuna administratzaileek egindako ekintzak edo ez betetzeak kaltea zein ondare edo, hobe esanda, zeinen ondarean eragiten duen kontutan hartzean datza. Hau da, kaltetutako ondarea Elkaratearena denean, elkaratearen akzioa egikarituko da, eta ondarea bazkideena edo hartzekodunena denean, banakako edo bakarkako akzioa egikarituko da.

<sup>39</sup> Auzitegi Gorenaren Ebazpena; 1990eko maiatzaren 8koa.

A) *Elkartearen Erantzukizun Akzioa*

Elkartearen akzioari dagokionez, kalte-ordain izaerako akzio itxura dauka eta, egikaritzen denean, administratzaileek karguan aritzean Elkarteari zuzenean eragindako kalteen ordainketa du helburutzat. Elkartearen ondare edo onura babestea helburutzat duen elkartearen akzio bat da, eragindako kalteak medeatuz. Dena den, akzioa bakarra da eta bakarra baita ere bere helburua, administratzaileek eragindako kaltearen ondorioz ondarea berriz elkarteratzea.

Akzio hau egikaritzeko legebideztatuta daude bai elkartea eta baita bazkide eta hartzekodunak ere. Bazkide eta hartzekodunek elkartearen izenean eta onuran jardungo dute, nahiz eta beraien helburua dituzten kreditu eta abarren ordainketa izan.

Lehenik, elkartearen esku dago akzioa egikaritzea, bera baita kaltea jasotzen duena. Akzioa egikaritu ahal izateko, aurrez *Batzar Nagusiak gehiengo soilaz erabaki behar du, nahiz eta eguneko gaiu zerrendan halakorik agertu ez*<sup>40</sup> —Gai Zerrendako gaiak lantzeko duen bere aginpideen xedearen salbuespen gisa—. Gainera, Estatutuek ezin izango diote gehiengo kualifikatuaren beharrezanik ezarri Batzar Nagusiaren aginpide honi<sup>41</sup>, nahiz eta Batzar Nagusiak edozein momentutan eman diezaiokeen baiezkoa edo ezezkoa akzioa aurrera eramateari<sup>42</sup>.

Merkataritza Elkartean gertatzen den bezala, Euskadiko Kooperatibetan ere *Batzar Nagusiak akzioa egikaritzeari baiezkoa ematea erabakiz gero, kaltetutako administratzaileak kargutik kanpo geratuko dira berez eta besterik gabe*<sup>43</sup>. Ez da derrigorrezkoa akzioa auzibideratzea<sup>44</sup>, eta behin-betiko ondorioak ditu, nahiz eta elkartearen akzioa egikaritu ostean Elkartearen demanda arbuaitua izan. Kargutik kanpo geldituko dira Batzar Nagusiak erabakitako administratzaileak, hau da, Batzar nagusiak administratzaile bat edo batzuen aurka soilik egikarituko balu akzioa, kanporatze horrek ez luke eraginik izango gainontzeko administratzaileengan.

Akordio hori betearaztea dagokie:

- a) Administratzaile berriei.
- b) Gainontzeko administratzaileei, akordio bati edo batzuei buruzkoa denean.

<sup>40</sup> EKL-aren 48.1 artikulua.

<sup>41</sup> Auzitegi Gorenaren Ebazpena; 1990eko azaroaren 26koa.

<sup>42</sup> Salbuespena: Mekataritza Elkartean, auzibideratu ostean, elkartearen baltzu-kapitalaren %5 ordezkatzen duten akziodunek, ezezkoa indarririk gabe utzi dezakete.

<sup>43</sup> EKL-aren 48.2 artikulua.

<sup>44</sup> Auzitegi Gorenaren Ebazpena; 1990eko maiatzaren 8koa.

- c) Batzar Nagusiak espresuki elkartearen akzioari dagozkion tramiteak burutzeko eta bera ordezkatzeko izendatzen duenari —gutziz derri-gorrezkoa da Batzar Nagusiak administratzaileen akzioa/ekintza ez egikaritzea erabakitzen duen kasuetan—.

*Erabakia hartu ondorengo hiru hilabeteetan Kooperatibak erantzukizunak eskatzeko akziorik hasiko ez balu, edozein bazkidek egin ahal izango du*<sup>45</sup>. Kasu hauetan, bazkide guztiak batera jardungo dute, auzibidezko defentsa eta ordezkaritza berdinarekin, beti ere akzioa administratzaile berdinen eta ekintza edo akordio berdinen aurka egikaritzuz gero.

Bazkideei aukera eta eskubide hau ematen zaie Elkartearen pasibotasuna zuzentzeko eta baltzu-interesaren babeserako. Kasu bietan, auzijartzaileak Elkartearen ordezkari bezala dihardute bere onuraren babesean.

*Kaltea egin eta sei hilabetetara Batzar Nagusiak eta/edo bazkideek ez badute akziora jo, elkarteko edozein hartzekodunek egikaritu ahal izango du erantzukizunak eskatzeko akzioa*<sup>46</sup>, beti ere baltzu-ondarearekin bere kreditua asetzeko nahikoa izango ez balitz, beraien kredituen ordaintzaren bermea baltzu-ondarean dutelako eta ondorioz baltzu-ondarearen urritze edo gutxitzeagatik kaltetuak izango lirateke.

Edozein hartzekodunek egikaritu dezake sorospidez elkartearen akzioa Elkartearen eta bazkideen pasibotasuna zuzentzeko eta baltzu-interesaren babeserako, hau da, elkartearen ondarea berriro osatzeko helburuarekin, daukan kredituaren zenbatekoa eta kreditu hori zein betearazpen titulutan oinarritzen den axola gabe. Honetarako, ezinbestekoa da baltzu-ondarea hartzekodunak duen kreditua ordaintzeko nahikoa ez izatea.

Iraungitasun epeari dagokionez, Euskadiko Kooperatiben Legeak espresuki aurreikusten du bi urteko epea, akzioa egikaritzeko arrazoi diren ekintzak gertatu edo ezagutu ondoren zenbatzen hasita<sup>47</sup>. Hau da, gerta liteke nahiz eta administratzaileen ekintzak momentu konkretu batean gertatu, ekintza horien berri eta ekintza horiek baltzu-ondarean sorturiko ondorio kaltegarrien berri ez izatea denboraldi bat igaro arte, eta kasu hoietan iraungitasun epea ekintza edo kaltearen berri izan den unetik zenbatzen hasiko da. Ulertu beharra dago baita ere, baltzu-ondarean kaltea sortu duen akordioa Euskadiko Kooperatiben Erroldan inskribatu beharreko

<sup>45</sup> EKL-aren 48.3 artikulua; Merkataritza Elkartean epea hilabetekoa da eta legebidezta-keta ez dagokio bakarki edozein akzioduni, baizik eta baltzu-kapitalaren %5 duen/duten akziodunei, nahiz eta Batzar Nagusiak erantzukizun akzio ez egikaritzea erabaki.

<sup>46</sup> Ikus 44. Oharra (aurrekoa).

<sup>47</sup> EKL-aren 48.5 artikulua.

akordioa den kasuetan, inskripzio una izango dela iraungitasun epea zenbatzen hasteko kontutan hartuko den epea.<sup>48</sup>

### B) *Bakarkako Erantzukizun Akzioa*

Baina administratzaileen erantzukizuna ez da higitzen edo bukatzen Elkartea Erantzukizun Akzioarekin. Horregatik, bazkide eta gainontzekoen ondareari zuzenean eragindako kalteagatiko erantzukizuna ere aurreikusten eta eratzikitzen die legeak administratzaileei, nahiz eta elkarteari eragindako kaltearekin batera gertatu.

Beraz, Bakarkako Erantzukizun Akzio hori kalte-ordain pertsonalak kitatzeko akzio gisa ulertu behar da; Elkartearen administratzaileen ihardueraren ondorioz beraien interesetan —ondarean— zuzenean kaltea jasan behar izan duten bazkide eta/edo gainontzekoek —hartzekodunak izan ala ez—, beraien ondare pertsonala babesteko eta aurrekora bihurtuko dela bermatzeko akzio bezala.

Bakarkako Erantzukizun Akzio honek hurrengo ezaugarriak ditu:

- a) Kalte-ordainak kitatzeko akzioa da eta bakarrik edo elkarte erantzukizun akzioarekin batera egikaritu daiteke. Bakarkako akzio honek, kaltetuaren —bazkide eta/edo gainontzeko izan— interes pertsonaletan jasandako erasoan dauka oinarria. Ondorioz, erantzukizuna kontratuz kanpokoa da eta kausalitate harremana guztiz da beharrezkoa.
- b) Akzio honi dagokionez, Kooperatibak ez diren elkarreei dagozkien Legeak ere, akziodun eta hartzekodunei buruz hitzegingin ordez bazkide eta gainontzekoak aipatzen ditu<sup>49</sup>.
- c) Hartzekodunak aipatu beharrean gainontzekoak aipatu behar dira, hartzekoduna, bere kreditua darion kontratuaren bitartez Elkartearekin duen harremanari dagokionez, ez baita izango gainontzeko. Hau da, Bakarkako Erantzukizun Akzioa egikaritu dezake administratzaileen ihardueragatik eragiten zaion kaltea ez denean zehazki bere kredituaren gain eragin, baizik eta bere gainontzeko ondarearen gain.

<sup>48</sup> Aurreikusmen espresurik izan ezean, Merkataritza Kodeak dio elkartearen akzio/ekintza 4 urte igarotzean iraungiten dela, administratzaileak kargutik kanpo gelditzen diren unetik zenbatzen hasita —Auzitegi Gorenaren Ebazpena; 1962ko otsailaren 3koa—, kaltea edo kaltea sortu duen egintzaren berri administratzaileak kargutik kanpo gelditu ostean izan diren kasuak salbu.

<sup>49</sup> 1.564/1989 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Sozietate Anonimoei buruzko Testu Bategina onesten duena.



Bakarkako Erantzukizun Akzioa egikaritzeko legebideztatuta egongo dira elkartearen administratzaileen ihardueragatik beraien ondareetan zuzenean kaltea eragin zaien edo kaltea jasan duten bazkide eta/edo gainontze-koak. Kaltetua izango da indibidualki kalte-ordaina kitatzeko akzioa egikarituriko duena.

- Bazkideen kasuan, akzioa egikaritzeko legebideztatuta egongo dira beraien onuran eragindako kalte zuzen batetan oinarrituta dagoenean; bazkidearen onuraren zeharka eragindako kaltea dagoenean, nahitaez egikaritu beharko baitu elkartearen erantzukizun akzioa.
- Gainontzekoen kasuan, baltzu-hartzekodunak direnak eta ez direnak sartzen dira (adibidez bazkide ez diren enpresaren langileak). Akzioa egikaritzeko legebideztatuta egon dadin, hurrengo ezaugarri orokorrak eman behar dira: zorra ordaintzeko epea bukatua izatea, eta zor hori diruzkoa eta eskagarria izatea.

Elkartearen administratzaileek, erantzukizun pertsonala izango dute, hau da, erantzukizuna ez dagokio Elkarteari, Elkartek ez duelako erantzukizunik administratzaileek kide anitzeko organo bezala egindako jarduerengatik.

Akzioa egikaritzeko legeak ezartzen duen iraungitasun epeari dagokionez, nahiz eta eztabaida dagoen urte betekoa eta lau urtekoa dela esaten dutenen artean, zehatzagoa eta irmoagoa da Elkartearekin zuzenean duten kontratutik dariela administratzaileei erantzukizuna diotenen iritzia; administratzaileek beraien ihardueran eragindako kalte-ordainak kitatzeko akzioa da, administratzaile kargua duten heinean. Ondorioz, Bakarkako Erantzukizun Akzioari dagokion iraungitasun epea lau urtekoa dela adierazi beharra dago<sup>50</sup>. Epe hori, administratzaileak, edozein arrazoi dela bide, kargutik kanpo gelditzen direnean zenbatzen hasiko da.

Nahiz eta Kode Zibilak urte beteko epea ezarri<sup>51</sup>, hain berariazkoak ez diren akzioentzako ezartzen da epe hori, zeren eta berariazkoagoa den arauak, hau da, Merkataritza Kodeak, lau urteko iraungitasun epea ezartzen du<sup>52</sup>.

<sup>50</sup> Auzitegi Gorenaren ebazpena; 1999ko apirilaren 29koa. Auzitegi Gorenaren ebazpena; 2001eko uztailaren 20koa.

<sup>51</sup> Kode Zibilaren 1968,2 artikulua: Urtebete igaro eta gero iraungitzen dira: 2) Erantzukizun zibila eskatzeko akzioa, erantzukizun hori sortzen bada irain edo kalumniaren ondorioz, eta 1902. artikuluan erru edo zabarkeria arautu eta horrek eratortzen dituen betebeharren ondorioz, beti ere laidotuak edo kaltetuak hori jakin duenetik.

<sup>52</sup> Merkataritza Kodearen 949. artikulua: *BazkidelAkziodun diren zuzendari-gerente eta administratzaileen aurka akzioa egikaritzeko epea 4 urteren bukaeran iraungitzen da, kargugabetzetik zenbatzen hasita, kargugabetzearen arrazoia edozein izanik.*

Iraungitasun epea zein denari buruzko iritzi ezberdinak dauden arren, iritzi horiek bateratzeak gai honi segurtasun juridiko maila handia ematen dio, kontratuzko eta kontratuz kanpoko erantzukizunaren artean dagoen mugan batzutan dauden zalantzak gaindituz. Gainera, ezarri beharreko bi iraungitasun eperi buruzko zalantzak daudenean, beti aukeratu beharko litzateke handiena, egikaritutako akzioaren bideragarritasunaren mesedetan<sup>53</sup>.

## 5. Auzi-bideratzea

### A) *Epai-bideetatik kanpo*

Euskadiko Kooperatibetan, beraien artean sortzen diren auziez, edo Kooperatiben —edo beren organo sozialen— eta bazkideen artean (administratzaileen erantzukizuna), edota Kooperatiben barruan organo sozialen artean edo bazkideen artean sortutakoez arduratzeko, epai-bideetatik kanpo konpontzeko prozedurak daude. Gatazka horiek epai-bideetatik kanpo konpontzeko aukera arautzekotan Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak «Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua»<sup>54</sup> sortu zuen, aurreko 36/1988 LEGEAn, abenduaren 5ekoa, Arbitrajearena, oinarrituriko 1998ko apirilaren 20ko Arbitraje Araudiaz hornituz<sup>55</sup>. Gaur egun, 60/2003 LEGEaren, abenduaren 23koa, Arbitrajearena<sup>56</sup>, argitalpenaren ondorioz, 2004ko uztailaren 15ean Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak «Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua» bertan behera utzi eta BITARTU deritzon zerbitzua sortzea erabaki zuen.

BITARTUk, euskal kooperatibetan gatazkak prebenitzeko neurriak sustatzen ditu, eta horiek konpontzeko kooperatiba-arloan bertan sortzen diren prestakuntza-premiak ere kontuan hartzen ditu. Ez du nortasun juridiko propiorik eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren menpe dago hierarkikoki, zerbitzu publiko bat emanez kooperatiba-elkarteei eta hauen bazkideei. Gatazkak konpontzeko prozeduren administrazioa doakoa da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren Osoko Bilkurak urtero erabakitzen duen zenbatekoraino. Euskal Kooperatiben gatazkak konpontzeko prozedurei buruzko Araudia, bere bidez sortu ze-

<sup>53</sup> Alikanteko Auzitegi Probintzialaren ebazpena; 1995ko urriaren 10koa.

<sup>54</sup> MERINO HERNANDEZ, S.; RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, M.<sup>ª</sup>P. eta SAN JOSÉ MARTÍNEZ, F.: «Euskal Kooperatiba-Arbitrajeko Eskuliburua», Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, Victoria-Gasteiz, 2001.

<sup>55</sup> *Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean* (108 zenbakia) argitaratua 1998ko ekainaren 11an.

<sup>56</sup> *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratua (3009 zenbakia) 2003ko abenduaren 26an.

larik BITARTU, E.H.A.A.n dago argitaratua, 181. zenbakian, 2004ko irailaren 21ean<sup>57</sup>.

Baina Kooperatibetako gatazka horiek epai-bidetik kanpo konpondu ahal izateko eta ondorioz BITARTU gatazkak ezagutu eta kasu bakoitzean dagokion ebazpena jaulkitzeko nahitaezkoa da Kooperatibaren Estatutu Sozialek agindu edo klausula hori espresuki jasotzea. BITARTUk lehen zerrendatutako gatazkak epai-bidetik kanpo konpontzeko hiru prozedura arautzen ditu:

- a) *Arbitrajea*. Alderdiak prozedura arautu baten mende jartzen dira eta BITARTUren esku uzten dute arbitro bat izendatzea, eta honek, zuzenbidez edo ekitatez, erabaki bat hartuko du eztabaida amaiazariz aldeentzako loteslea den erabaki horren bitartez. *Laudo irmoak gauza epaituaren ondorioak izango ditu, eta hori berrikustea, epai irmoentzat Prozedura Zibileko Legean ezarritakoaren arabera bakarrik egin*<sup>58</sup> ahal izango da, *alde guztiek eta bakoitzak onartu eta obeditu egingo dute sortuko den laudoa, hori betetzera behartuz*<sup>59</sup>.
- b) *Adiskidetzea*. Eztabaida konpontzeko aurkakotasunik gabeko mekanismoa da. Horren bidez adostasunera iritsi nahi izaten da BITARTUren aurrean agertuz, azken honek akordioa bera ere proposatu ahal izango duelarik.
- c) *Bitartekotza*. Negoziazio-sistema lagundua da; gatazkan dauden aldeek, BITARTUren laguntzarekin baina beren kabuz gatazka konpontzen saiatzen dira. Kasu honetan, aldeen arteko komunikazioa erraztu eta bideratzeko ahalmena izango du BITARTUk.

## B) *Epai-bideak*

Administratzaileen Erantzukizun Akzioak, bai Elkartearena zein Bakarkakoa egikaritu, ez dauka aurremugaturik auzibidezko arautegian inongo prozedura berezirik. Ondorioz, demandan eskaturiko zenbatekoaren arabera dagokion adierazpenezko judizio prozedura jarraitu beharko du.

<sup>57</sup> NAGORE APARIZIO, I.: «Bitartu, Servicio de resolución extrajudicial de conflictos en cooperativas vascas», *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria*, 0 zenb., 2004, 203-212 orrialdeak, Euskal Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

<sup>58</sup> Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren ARAUDIA, euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozedurei buruzkoaren 49. artikulua.

<sup>59</sup> Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren ARAUDIA, euskal kooperatibetan gatazkak konpontzeko prozedurei buruzkoaren 50. artikulua

Demandaren zenbatekoak zehazten du bai jarraitu beharreko adierazpeneko judizio prozedura eta baita gaia aztertu eta ezagutu behar duen legezko epai-organoa zein den ere; kasaziozko helegitea ezarri ahal den ala ez.

Auziaren zenbatekoari dagokionez, adierazpeneko judizioak hurrengoak dira:

- a) **Judizio Arrunta:** Demandaren zenbatekoa 3.005,06 euro edo gutxiagokoa denetan edo zenbatekoa zehaztezina den kasuetan, ezta era erlatiboan ere.
- b) **Hitzezko Judizioa:** Demandaren zenbatekoa 3.005,06 eurotik beherakoa denetan.

Oinarrian, legezko Jurisdikzio Zibilari dagozkio Administratzaileen Erantzukizun demandak ezagutzea, izaera zibileko akzioak direlako. Salbuespen bezala, langileek eskaturiko kredituen lan-izatasunean oinarritutako demandak Giza-Jurisdikzioari dagozkiola dio Auzitegi Gorenak.

Erantzukizun akzioak ezagutzea lehen auzialdiko merkataritza epaitegiei dagokie, bai judizio arruntaren bitartez zein hitzezko judizioz egikaritu, beti ere, azken kasu honetan, demandaren zenbatekoa 90,15 euro baino handiagoa denetan, zeren eta zenbateko hori gainditzen ez duten demandak bake epaitegiei dagozkie.

Lurralde eskumenari dagokionez berriz, lehenik alderdiek adierazitako edo adierazten duten menpekotasunaren arabera zehaztuko da. Ez badago inongo menpekotasunik, barruti orokor bezala auzitaratuaren egoitza hartzen da kontutan<sup>60</sup>.

Auzitegiaren ebazpenaren aurka Prozedura Zibilean jasotzen den helegite araubidea aurkitzen da, berezitasunik gabe; Lehen Auzialdiko Epaitegiaren ebazpenaren aurka, gora jotzeko helegitea ezarri daiteke, eskumena Auzitegi Probintzialari legokiolarik, eta honen ebazpenaren aurka kasazio helegitea ezar liteke, demandaren zenbatekoa 150.253,03 eurotik gorakoa denean edota ebatzitako gaiak kasazio interesa duenean<sup>61</sup>, Auzitegi Gore-

---

<sup>60</sup> Administratzaile baten edo batzuen aurka egikaritzen diren akzioak bat baino gehiago badira, beste akzio guztien oinarri den akzio nagusiari dagokion lurraldeko epaitegiak izango du eskumena, horrelakorik ez badago akzio kopuru gehien dagozkion lurraldeko epaitegiak eta besterik ezean, zenbateko handiena duen demandari dagokion lurralde epaitegiak. Auzitaratuak bat baino gehiago badira eta lurralde eskumena epaitegi bati baino gehiagori balegokio, demanda horietako edozeinetan aurkeztu ahal izango da.

<sup>61</sup> a) Auzitegi Probintzialeko ebazpena Jurisprudenziaren aurkakoa denean.

b) Ebatzitako gai edo auzi desberdinei buruz kontraesaneko Jurisprudenzia dagoenean Auzitegi Probintzialesan.

c) Indarrean 5 urte baino gutxiago daraman araudia ezartzen duenean eta gai berdin edo antzekoari buruzko lehenagoko araudiei buruzko Auzitegi Gorenaren Jurisprudenziaz ez dagoenean.

nak izango duelarik eskumena. Gainera, Prozedura Zibileko Legeak ezarritako Ezohiko Helegiteak ere ezarri litezke<sup>62</sup>.

Garrantzitsuak dira baita ere Administrazioaren Erantzukizuna eskatzerakoan egikaritzen diren akzioen kasuetan nahiko ohizkoak izaten diren kautelazko neurriak, ziurrenik ezbaliozko adierazpena jasoko duten akordioaren betearazpena eta neurri horiek ezarri ezean auzijartzailearentzat eragin daitezken eragozpenak eta/edo kalteak sahisteko.

Era honetako prozeduretan, gehienetan denboran zehar luzatzen direnez eta luzapen honek dakartzan arriskuak saihesteko, besteak beste Elkartearen eta administrazioaren ondasunak gordetzeko edo ez desagertzeko, gomendagarria izaten da ondasun guzti horien gaineko prebentziozko bahia eskatzea.

Baina kautelazko neurriak eskatu ahal izateko, azaldutakotik ondorioztatzen den bezala, bi baldintza bete behar dira nahita nahiez:

- Auzijartzaileak egikaritzen duen eskubidea benetakoa eta legebidezkoa delako itxura.
- Auzijartzaileari kalte eragiteko arriskua izatea, behin-behineko ebazpen oiniritziak eragingarritasuna izan dezan eragotziz.

## 6. Ondorioak

Lehenago adierazi den bezala, administrazioaren erantzukizun akzioa egikaritzeko akordio edo erabakiaren lehen ondorioa administrazioaile horiek kargutik kanpo edo kargutik kentzea da, beti ere Batzar Nagusiak bestelakorik erabaki ezean. Kargutik kentze honek indarrean jarraituko du eta baliozkotzat joko da nahiz eta akzioa egikaritzeko legebideztatuta dagoenak edo daudenek akzioa bertan behera uztea erabaki —akzioaren egikaritzea bertan behera utziz— edota ebazpenak/laudoak diotenaren arabera administrazioaileek ez izan eragindako kaltearengatik erantzukizunik —administrazioaileei erantzukizunik ez eratzkitzea—.

Baina kargugabetze horrez gain, administrazioaren erantzukizun akzioaren egikaritzearen ondorioz, kaltea eragin duen akordioa hartu zuten administrazioaile guztiak era solidarioan erantzun beharko dute.

Administrazioaren erantzukizun adierazpenak, erantzule solidario gisa, eragindako kaltea medeatzeko betebeharra dakarkie, dagozkien kalte-ordainei aurre eginez. Dena den, baliteke adierazi ditugun egoera berezi hoietako batetan aurkitzen diren administrazioaileetako bat edo batzuk erantzukizunetik askatuak izatea.

---

<sup>62</sup> 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, Prozedura Zibilekoaren 490. artikulutik 493. artikulura (legearen interesgune bezala) eta 468. artikulutik 476. artikulura (auzibidezko arau-haustea).

Kalte-ordainketak barnean hartzen ditu azaleratutako kalteak eta lortugabeko irabaziak, hau da, Elkartearen eta/edo bazkideen eta/edo gainontzekoen ondarean eragindako urritzea eta eragotzitako irabazkinak. *Kalte-galeren ordainak bere barruan hartzen ditu, hartzekodunak izandako galeren balioa ez ezik, hartzekodun horrek lortu ez duen irabaziaren balioa ere, hurrengo artikuluetan jasotako xedapenei kalterik egin gabe*<sup>63</sup>. Eragotzitako irabazkinak izan direla frogatzeko, benetako aukera objetiboa egon behar da<sup>64</sup>, eragindako ekintza ez zilegiarekin kausalitate harremana izan behar du eta eragotzitako irabazkinak kontratuz edo kontratuz kanpoko erruagatik sortu daitezke<sup>65</sup>, eta ez dira kontutan hartu behar emaitza berdina sortu dezaketen geroagoko kari, erreserba edo ekintzak, erantzukizuna eragiten duen ekintzarik izan ez bada<sup>66</sup>.

Elkartearen kudeaketa kide anitzeko organu baten esku edo ardurapean uzten denean, administrazio organo hori osatzen duten kide guztiak erantzule direnaren presuntzioa ezartzen da, eta ondorioz frogaren zama irauli egiten da. Honen helburua, Elkarteari, bazkideei eta gainontzekoei akzioak egikaritu ahal izatea erraztea da, ekintza edo akordio kaltegarria burutu edo hartzen duen administrazio organoa osatzen duten kide guztien erruduntasuna frogatu beharra baztertuz:

- Administratzaile bakoitzak eragindako kaltearen ordainetan erabakitako kalte-ordainaren zenbateko osoagatik erantzuten du.
- Erantzukizun Akzioa egikaritzen duenak, inolako bereizgaberik gabe, edozein administratzaile edo administratzaileen aurka jo dezake. Administratzaile baten aurka egindako erreklamazioak ez du sahiesten gainontzeko administratzaileen aurka erreklamazioa burutu ahal izatea, zorraren zenbatekoa osorik medeatzen ez den bitartean.
- Administratzaile batek erabakitako zenbateko guztiaren ordainketa eginez gero, administratzaile guztien betebeharrak edo erantzukizunetik salbuesten du. Baina ordainketa egin duen administratzaileak gainontzeko administratzaile erantzuleei erreklamatu diezaieke bakoitzari proportzionalki dagokion zenbatekoa gehi aurrerakinaren korrituak. Erantzule den edozein administratzailearen kaudimenik ezaren ondorioz ordaindu gabe gelditzen den zenbatekoa gainontzeko administratzaile erantzuleek ordaindu beharko dute, hainbanakotasunez.
- Administratzaile bakoitzari dagokion zenbatekoa, erantzukizun guztien zenbatekoa zati erantzukizunetik askatuak izan ez diren administratzaileen kopurutik ateratzen da.

<sup>63</sup> Kode Zibilaren 1106. artikulua.

<sup>64</sup> Auzitegi Gorenaren ebazpena; 1978ko martxoaren 20koa.

<sup>65</sup> Auzitegi Gorenaren ebazpena; 1954ko martxoaren 23koa.

<sup>66</sup> Auzitegi Gorenaren ebazpena; 1968ko urriaren 31koa.

## Aipaturiko bibliografia

- OLAVARRÍA IGLESIA, J. eta FAJARDO GARCÍA, G.: *Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa (CIRIEC)*, 11. zenb., 2000ko azaroa, 156-157. orrialdeak.
- GONZÁLEZ TAUSZ, R.: «Las cooperativas de viviendas de responsabilidad limitada no existen», *Revista de Estudios Cooperativos (REVESCO)*, n.º 67, 1999, 1.º cuatrimestre, 106. orrialdea eta hurrengoak.
- VINCENT CHULIÁ, F.: «Los órganos sociales de la cooperativa», *RJC*, 1978, 81 eta hurrengo orrialdeak.
- SANZ SANTAOLALLA, J. eta UGARTE ZUBIZARRETA, L.: *Análisis jurídico de los órganos sociales de las cooperativas vascas y pautas de funcionamiento adecuadas*, Oñati, 2001, 84-87. orrialdeak.
- BOQUERA MATARREDONA, J.: «El órgano de administración en las sociedades laborales», *Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa (CIRIEC)*, 13. zenb., 2002ko urria, 111-124 orrialdeak.
- PÉREZ CEPEDA, A.I.: *La responsabilidad de los administradores de sociedades: criterio de atribución*, Barcelona, 1997, 33-35; 61-63; 105-117 orrialdeak.
- OLAVARRÍA IGLESIA, J.: *Revista Jurídica de Economía Social y Cooperativa (CIRIEC)*, 10. zenb., 1999ko urria, 114-116 eta 137-140. orrialdeak.
- MONTOLÍO HERNÁNDEZ, J.M.ª: «Consejo Rector y Dirección en la Nueva Ley general de Cooperativas», *Revista de Estudios Cooperativos (REVESCO)*, n.ºs 56-57, 1988-1989, 141-144 orrialdeak.
- PASTOR SEMPERE, C.: «Consejo Rector (Administradores) y Dirección», *Revista de Estudios Cooperativos (REVESCO)*, n.º 77, 2002, 2.º cuatrimestre, 123-129; 144-147. orrialdeak.
- MERINO HERNÁNDEZ, S.: «Derechos y deberes de los órganos sociales de las cooperativas: interventores y Comité de Recursos», *Revista de Estudios Cooperativos (REVESCO)*, n.º 77, 2002, 2.º cuatrimestre, 109-122. orrialdeak.
- RODRÍGUEZ RUIZ DE VILLA, D. eta HUERTA VIESCA, M.ªI.: «La responsabilidad de los administradores en las sociedades de capital», Aranzadi, Pamplona, 1997, 104-117 orrialdeak.
- NAGORE APARIZIO, I.: «Bitartu, Servicio de resolución extrajudicial de conflictos en cooperativas vascas», *Gizarte Ekonomiaren Euskal Aldizkaria*, 0 zenb., 2004, 203-212 orrialdeak, Euskal Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- MERINO HERNANDEZ, S.; RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, M.ªP. eta SAN JOSÉ MARTÍNEZ, E.: «Euskal Kooperatiba-Arbitrajeko Eskuliburua», Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, Vitoria-Gasteiz, 2001.
- NEILA NEILA, J.M.ª: «*Sociedades laborales; análisis sistemático de la Ley 4/1997, de 24 de marzo*», Madrid, 1998, 239-245 orrialdeak.